



MUSIKA

# Arimaz beteriko egitaraua



## FITXA

Euskal Herriko Gazte Orkestra eta Euskal Herriko Gazte Abesbatza.

**ZUZENDARIA:** Rubén Gimeno.

**EGITARAUA:** Grieg, Sibelius, Vaughan Williams eta Sorozabalen lanak.

**EGUNA:** Urtarrilaren 2a.

**LEKUA:** Donostiako Victoria Eugenia Antzokia.

## MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO) 25. urteurrena ospatzen ari da. Harrobiko urte hauetan bilakaera interesgarria ikusi dugu. Izan ere, gero eta gutxiago harritzen gaitu talde horren kalitateak, gero eta gehiago espero baitugu. Eta EGOk ez du inoiz huts egiten.

Neguko bira honetan eskainitako programa arretaz aukeratu dute, bizitzen ari garen garaian zentzua izan zezan. Eta nik aipatzen nuen interpretazio-bilakaera hori erakusteko ere bai.

Kontzertua Edward Grieg norvegiarraren *Peer Gynt* ederrarekin hasi zen. Egia esan, konposizio hau Henrik Ibsen norvegiarraren antzerki-obra baten zatik konposatutako musika intzidentala da. Baina partiturak hainbesteko arrakasta izan zuen, ezen konpositoreak zati batzuk atera eta bi suitetan biltzea erabaki baitzuen. Orkestra-koloreko miraria da, melodia-inspirazio

handikoa, Griegen ukitu folklorikoaz tindatua. EGOk kideek ondo baino hobeto jakin zuten Rubén Gimeno zuzendariak emandako ñabardura guztiak itzultzen. Interpretazio simple eta koloretsua izan zen.

Ondoren, Jan Sibeliusen *Finlandia* obra nazionalista eskandinaviar handienetako bat interpretatu zuten. Lanak zazpi minutu inguru irauten du, eta ia luze-zabalean eritmo eta estilo zurrunbilotsuan garatzen da, orkestra-karga handiarekin, finlandiar herriaren zapalkuntza eta borroka sinbolizatzen du, itxaropenezko ereserki batekin amaituta. Pieza hau arrazoi aberkoiekin konposatua izan zen, Errusiar Inperioaren gobernuak finlandiar autonomia deuseztatzearen aurkako herri oposizioa mugiarazteko. Tsaristen zentsurari iseka egiteko jaso zituen izenburu ezberdinak ospetsu egin ziren, horien artean

*Sentimendu zoriontsuak Finlandiako Udaberriko Egunsentian*. EGOk bertsiotz bizia egin zuen, ñabardura handirik gabekoa, baina erritmikoki oso zuzena.

Egitarauak Vaughan Williamsen lan koral handienetako batekin jarraitu zuten: *Towards the unknown region*, Euskal Herriko Gazte Abesbatzak protagonismoa izan zuen inspirazioz beteriko obra. Ispirazio handiko interpretazioa eskaini zuten, dudarik gabe.

Eta Pablo Sorozabalen *Gernika* oratorio dramatikoarekin amaitu zen kontzertua, hiriaren gaineko bonbardaketen izugarrikeria gogoratuz. Musikagilearen jaiotzaren 125. urteurrenean, obra hau ezin zen falta. Euskal Herriko gazteen koro eta orkestraren interpretazioa bizia izan zen, eta ñabardura nabarmenez bete.

Bis bezala, gabon kantak ezin ziren falta. Alaitasun hutsa. ●